

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Las puertas están abiertas en ocho direcciones.
Lobo Electrico
Belleza Malandra.
Iraupena: 12' 10".

1970eko hamarkadako jarrera eta mistizismoa basoan aske

GEHIENETAN diskoak ekartzen ditugu hona, baina Tolosako Lobo Electricok 10 urtetan disko bakarra eta bi EP kale-ratu dituenez, EPa atera duela baliatu dugu otsoa harrapatzeko. Grind-corearen aitzindari izan zen Ruido de Rabia taldeko bi kidek sortu zuten honako taldea, baina kasu honetan hard-rock, psikodelia eta 1970eko hamarkadako soinetatik abiatzen dira. Irudiz, poeziaz eta mistizismoz betetako hitzek

ematen diote izaera berezia Lobori, eta RDR taldean baino metaforikoagoak dira, ez hain salaketakoak. Lan honetan, esaterako, *Fantasma* eta *Luna Roja* dira aukeratutakoak, iluntasunez, malenkoniarekin eta misterioz jositakoak. Musikari dagokionez, taldea heldu egin dela esango genuke: Stooges, Black Sabbath, AC-DCk eta psikodeliak inoiz baino hobeto bat egiten dute giro eta erritmo tribalekin.

Santi Iribar - Lobo Electrico

«Ez dugu estilo baten esklabo izan nahi; senak eskatzen dizuna egin behar duzu»

Nondik dator otso elektrikoa, iluntasunetik, galarazitakotik? Zertara etorri da?

Misteriotik dator. Bizitza osoa daramat otsoa ikusteko eta desku-britzeko prozesuan. Inoiz misterioa desagertzen bada, otso elektrikoa joan egingo da. Jakin nahi nuke zertara etorri den. Baliteke gure bizitza hobetzeri etorri izana edo suntsipena ekartzera.

Hitzetan ama natura, piztiak, planetak, zeruak, gerizpeak... agertzen dira.

Bai, irudi horiek erabiltzea gustatzen zait. Mitologia zaharrak, adibidez, asko erakartzen nau. Irudi horiek gertukoak ditut eta barrutik gauza asko mugitzen dizkidate, emozionalki zerbait aterazten didate.

"Kimba nakama". Halako eragina izan zuen zugen Ruido De Rabiaren sasoian Brasilerara egindako bidaiak?

Bai, bidaiak hark asko markatu ninduen; gauzak beste ikuspuntu batetik aztertzeri bultzatu ninduen. "Kimba nakama" gailu magiko txiki bat da, errealitatean aldaketa txikiak egiten dituen; baita mantra bat ere.

Zuen kontzertuak terapeutikoak dira? Zuentzat, ikusleentzat?

Niretzat eta taldekideentzat badira, eta ikusle batzuentzat ere bai. Gehiago esperimentatu beharko genuke; proba egin dugun gutxietan oso emaitza bitxiak lortu ditugu, baina zoritxarrez guk geuk ere errazenera jotzen dugu.

Stooges, psikodelia eta 1970eko hamarkadako rocka zuen abiapuntuak dira, ezta?

Bai. Gauza gehiago entzuten ditugu, baina laurok hor egiten dugu bat. Hala ere, ez dugu estiloetan askorik pentsatzen. Ez dugu estilo baten esklabo izan nahi; senak eskatzen dizuna egin behar duzu.

Mesfidantzaren eta indibidualismoaren garai hauetan nik ez nuke esango "ateak zortzi norabideetan zabalik daudenik".

Kaosaren izarren zortzi muturrekin lotzen ditut nik; eta esan nahi dut kaosak bere sorkuntza prozesua indarrean duela. Baina zabalik egoteak ez du esan nahi positiboa denik, sortzen dabilela baizik. ■

